




(+34) 943 424119  
San Martin, 36 - 3.B  
20005 DONOSTIA

# Farmaberti

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



## Euskara Taldea eratu da Bizkaiko Elkargoan

**G**aur egungo gizartea etengabe eta abiadura izugarri batean aldatzen ari dela gauza jakina da. Inguruzten gaituen guztia aldatzen da baita gurea den botikariaren lanbidea ere. Aldaketa hauei ahal den neurrian aurre egin behar zaie eta inoiz ere ezin gara atzean gelditu. Horretarako gurea dugun lanbide honengatik lan egin beharra daukagu. Ideia honetan oinarrituz, Bizkaiko Farmazialarien Elkargoan (beste guztietan ere horrela izango da ziurrenik) hainbat lan talde daude, arlo ezberdinak jorratzen dituztenak. Bukatuta dauden lan ugari eta abian diren beste horrenbeste proiektu daude memento honetan, inongo zalantzarik gabe, botikari guztien onurarako. Baina lan talde guzti hauek ezagurri berezi bat daukate: guztiak gaztelaniaz lan egiten dutela. Hau honela izanik, Bizkaiko Elkargoko zenbait farmazialarik, Euskara lan taldea sortzea pentsatu genuen.

Hasiera batean lau edo bost pertsonen hartu genuen lan egiteko erabakia baina denborarekin beste farmazialari batzuk ere batu zaizkigu. Memento honetan 10 bat farmazialarik osatzen dugu taldea: Gorka Urruzuno, Sonia Sanz Olmos, Izaskun Gorostiaga, Beatriz Fortes Méndez, Eider Ajuuria, Gorka Ramirez, Irantzu Gandarias, Mónica Martínez, Batirtze Tranche Robles, Ziortza de Miguel Pereda, Xemein Larrinaga, Sonia Saenz de Buruaga, Javi Díez Macaya, Naia Erkoreka, Aitziber Mendizabal, Aizgane Eiguren eta Koldo Gorostiaga. Pixkanaka pixkanaka hasi dugu gure ibilbidea. Hasieratik gure helburua

### Gure helburua da euskara farmazialarien eguneroko bizitzan sartzea

zein den argi eta garbi izan dugu: euskara farmazialarien eguneroko bizitzan sartu beharra. Baina ez dugu soilik itzultzaile lanak egingo dituen lan talde bat izan nahi. Farmazia munduarekin zerikusia duten gaiak jorratu nahi ditugu, gaur egunekoak eta lanbideari eta farmazialariari interesatzen zaizkionak, eta guzti hau euskaraz. Gure lanak kalitatezkoa izan behar du, gutxienez gaztelaniaz egiten ari diren lanen parekoak edo hobeak. Ez da nahikoa izango euskaraz idatzita egotea.

Guzti hau kontuan izanik, lanean hasi gara duela 6 hilabete eta euskarazko proiektuak egitea erabaki dugu. Lan egiteko daukagun era hauxe da: denon artean, gaztelaniazko prospektu taldekoek baita ere, prospektu eredu bat garatu dugu eta gure lankide guztiek jaso dute e-mail bidez. Ondoren iristen zaizkigun prospektu guztiak, bai gaztelaniazkoak bai euskarazkoak, eredu horren arabera





moldatzen ditugu eta guztiei itxura berbera ematen diegu. Lan egiteko era honi abantaila argi bat ikusten diogu: lan egiteko gogoia duen edonor sar daitekeela gure taldean e-mail bidez komunikatzen baikara. Hilean behin gutxi gora behera, gauzak nola doazen ikusteko Elkargoan biltzen gara. Bakoitzak egindako lana bere koordinatzaileari bidaltzen dio eta honek denak berrikusi eta gordetzen ditu. Beraz, lan egin nahi duen eta euskara bultzatu nahi duen edonor ongi etorria da gure euskara talde honetan. Itzulpen lan honetan, oso baliagarri gertatu zaigu Feusek argitaratu zuen Euskarazko Hiztegia. Hiztegi honetan, gure lanbidean egunerokoak diren hitz pila bat agertzen da eta horrek lana asko errazten du. Itzulpenak egin ahala hitz berri askorekin aurkitu gara. Interesgarria izango litzateke hitz berri hauek biltzen joatea guztion artean eta lehendik argitaratuta dagoen hiztegiaren gehigarria izan dadin. Momentuz ez gara lan horretan murgildu baina aurreago egin ahal den zerbait izan daiteke.

Argi dago Bizkaiko Elkargotan sortutako lan talde bat gara eta bertan lan egiten dugula. Baina garatzen ditugun prospektu guztiak Bizkaiko Elkargoko web orrialdean agertuko dira eta denok izango dugu bertan sartzeko aukera ez baita inongo pasahitzik behar prospektuak irakurri ahal izateko. Honen adibide gisa aipa daiteke Gipuzkoako farmazia batek bidali digun prospektu piloa. Lehenagotik eginda zituenak bidali dizkigu, egia esateko hamaikatzat bat, eta hauek moldatu ditugu gure ereduaren arabera. Badakigu gure eredu ez dela hoberena eta baliteke moldatzean datu ugari



**Maisu formulenak dira gehien euskaratu diren prospektuak**

galtzea. Baina gure helburua ez da prospektu ezin hobeak egitea, hauek eskura izatea eta farmazialariari lana erraztea baino.

Ezari berria den Maisu Formulerei buruzko legedi berriak, lehen egiten ez ziren eta gaur egun ezinbestekoak diren lanak egitera behartzen gaitu. Argi daukagu gure lanbidearen onuragarri izango direla aldaketa hauek, baina lehen genituen lan egiteko erak moldatu beharrean aurkitu gara guztiok. Horregatik, prospektuak web orrialdean edukitzeak lan zama bat ken diezaguke, era berean euskarazko zerbitzu egoki bat eskainiz gure botiketari. Dagoeneko 80 prospektu ditugu euskaratuta eta web orrialdean noiz jarriko zain. Gehien erabiltzen diren Maisu Formulenak dira eta ziurrenik denek erabili ahal izango dugu baten bat. Egindako prospektu hauetatik abiatuz, antzekoak baina berdinak ez diren beste prospektu asko eratu daitezke moldaketa txiki batzuk eginez eta lan handiegirik ga-

be.


Nahiz eta hainbat prospektu jadanik itzulita eduki, lana ez da hor bukatu behar eta ahal den heinean jarraitu egin behar dugu pilaketa lan honetan. Badakigu eguneroko lana euskaraz egiten duen farmaziarik badela eta jakina denez hauek egiten dituzten prospektuak ere euskaraz daude. Guzti hauek batzeko gai izanez gero eta euskaraz lan egiten dugun guztiok gure harri koskortxo jarritz gero, pilaketa lan hau izugarri aberastuko litzateke.

Beraz, lan hau ez dugu inoiz utziko baina honek ez du esan nahi beste ezer egingo ez dugunik. Bizkaiko Elkargoko Sendagaiak aldizkarian euskaraz idatzitako testuak azaltzea da gure hurrengo nahia. Jakina denez, testuak kalitatezkoak izan behar dira eta farmazialariei interesatzen zaizkienak. Lan egiteko gogoia duen edonor izango da oraingoan ere ongi etorria taldean. Horretarako Bizkaiko elkargora deitu besterik ez



dago eta bertan Euskara Taldeko koordinatzailea den Koldo Gorostiagatik galdetu. Ikusten denez, hasten dagoen lan talde bat gara eta oraindik ez dugu ezer argitaratu. Baina hasierak beti izaten dira zailak. Garrantzitsuena taldea sortu izana da eta bertan lan egiteko jendea edukitzea. Euskaraz dakiten eta euskaraz ikasi duten generazio berriak datoz gure atzetik. Hauek jakin beharra daukate, beraien lanbidea euskaraz garatzeko eta bizitzeko aukera badagoela Elkargoetan eta FEUSE bezalako taldeetan. Guk lehenengo harria baino ez dugu jarri. Orain lan egiteko garaia da.

**AINE ez selektiboak bihotz gutxiegitasun kongestiboa areagotzearekin zuzenki lotu izan dira, ziklooxigenasa 2aren inhibitzaileek (AINE selektiboen arteko taldea) dituzten eragin kardiobaskularrei buruz, gutxiago dakigu oraindik. Kontrol talde batekin konparatuz, ikusi zen bihotz gutxiegitasun kongestiboa zela eta, ospitalizatzeko arriskua areagotzen zela rofecoxib edo eta AINE ez selektiboak hartzen zituzten gaixoetan, celecoxib-ekin berriz (COX-2aren inhibitzailea) ez zen halakorik antzematen.**



Bihotz gutxiegitasun kongestiboa, bihotzak, gorputzeko beste organoen oxigeno beharrak asetzeko adina oxigenodun odol

bidali ezin duenean sortzen den eritasuna da. Odola bidaltzen du, baina ez bihotz osasuntsu batek bezala. AINE (antiinflamatuzaile ez esteroideak) ez selektiboak eragiten zuen odol presioaren igoerarekin eta sortarazten zuen edema periferikoarekin lotu da bihotz gutxiegitasun kongestiboa. Rofecoxiben (VIOXX) kasuan berriz ezezagunagoa da bihotz gutxiegitasun kongestiboarekin duen loturaren zergatia.

Hau dela eta, ondorengo ikerketa egin zen Kanadan: Bihotz gutxiegitasun kongestiboa zuten 66 urtetik gorako hiru talde egin ziren:

- 14.583 gaixo rofecoxib-ekin tratatuak izan ziren.
- 18.908 gaixo celecoxib-ekin tratatuak izan ziren.

## COX-2 inhibitzaileen eta AINE ez-selektiboaren arriskua bihotz gutxiegitasun kongestiboan

- 5.391 beste AINE batzuekin tratatuak izan ziren.
- 100.000 gaixok osatzen zuten kontrol taldea, hauek inolako AINErik ez zuten hartzen.

Honako hau izan zen emaitza:

Rofecoxib eta AINE ez selektiboak hartzen zituztenek bihotz gutxiegitasun kongestiboa izateko arrisku handiagoa zuten (rofecoxib hartzen zutenek besteek baino handiagoa oraindik), baina ez zen gauza bera gertatzen celecoxib hartzen zutenekin. Beraz, Celecoxib-a da bihotz gutxiegitasun kongestibo arriskua gutxien areagotzen duena.

Ikerketa honekin bat etorri zen beste ikerketa bat ere egin zen osteoarthritis zuten gaixoekin (kasu honetan celecoxib-a eta rofecoxib-a konparatzen zi-

ren). Bigarren ikerketa horrek erakutsi zuen urte askoren burura, rofecoxib hartzen zuten gaixoengan presio sistolikoaren igoera esanguratsua zela, bai eta edemen sorrera edo larriagotzea ere. Celecoxib hartzen zutenen kasuan ez zen horrelakorik gertatzen, neurri esanguratsuan behintzat.

Ikerketa honen ondorioz MSD laborategiak VIOXX-a eta CEOXX-a (rofecoxib) merkatutik at uztea erabaki du.

Zelanda Berrian eginiko ikerketa batek, COX-2ek (rofecoxib eta celecoxib) ikusmen aldaketa larriak eragin ditzaketela ikusi da, ikusmena normaltasunera itzultzen da tratamendua utzi orduko. Beraz, ikusmen arazorik antzemanaz gero, berehala utzi behar da tratamendua.



**Euskararen erabilera bultzatu eta normalizatzeko egiten diren egitasmoak saritzeko**

# FEUSEren FARMABURUA saria

Farmazialari Euskaldunen Elkarteak eskertu nahi ditu, farmaziaren arloan, euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak. Hori dela eta, Elkarte honek FEUSEren FARMABURUA izeneko ikurra sortu du eta edozein gizabanako, talde, erakunde edo elkarte eskuratu ahal izango du.

## Deialdia

FEUSEko kide guztiok hautagaien bat (gizabanako, talde, erakunde edo elkarte) proposatzen ahal dugu haren merezimenduak azalduz. Proposamenak aurkezteko epea, 2004ko abenduaren 31a bukatzen da.

Irabazleari zuzenean esango zaio hautatua izan dela eta 2005eko FEUSEren Batzar Orokorraren egunean emango zaio FEUSEren FARMABURUA.

## Epaimahaia

FEUSEko Batzorde Zuzendariko kideek osatzen dute epaimahaia eta 2005eko Batzar Orokorraren eguna baino lehen erabakiko dute irabazlea nor den.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak erabakiko du aurreikusitako gabeko gutzia.

## Proposamen-bidalketak

Proposamenak emailen bidez bidaltzen ahal dira: p.iturria.000@recol.es

edo postaz, helbide honetara:

Pello Iturria. Farmazia.  
Estafeta, 87  
31001 IRUÑEA



## Oraingoan gure esker ona adierazi nahi dugu

FEUSEko Batzorde Zuzendariak 2004ko martxoaren 17an egindako bileran onartu zuen eskertzea, farmaziaren arloan, euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak. Hori dela eta FEUSEren FARMABURUA izeneko ikurra sortu du. Edozein gizabanako, talde, erakunde edo elkarte aukeratua izan daiteke FEUSEren esker oneko ikur hau eskuratzeko.

FEUSEko kide guztiok proposatzen ahal dugu hautagaien bat gure ikurra eskuratzeko; Elkartearen Batzar Orokorraren egunean emango zaio irabazleari FEUSEren FARMABURUA. Ikur hau izen handiko eskultore batek egindako artelana da eta Batzorde Zuzendariaren asmoa da bi urtean behin ematea.

Bestalde, iaz FEUSE SARIA sortu genuen. Guztira sei lan aurkeztu ziren. Arrate Jaurregi eta Itziar Fernandez de Larrinoa lan-kideek irabazi zuten saria, ardoari buruz-

ko lan batekin. Sariaren kopurua 3000 eurokoa izan zen. Batzorde Zuzendariaren asmoa da, heldu den urtean, 2005ean, hain zuzen, FEUSE SARIA berriz ere iragaritzea.

Beraz, aurrerantzean, bi deialdi hauei eutsi nahi diegu; urte batean, euskaraz sortutako testu teknikoaren kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten laguntzeko FEUSE SARIA, eta, hurrengo urtean, farmaziaren arloan, euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak eskertzeko FEUSEren FARMABURUA.

FEUSEren Batzar Orokorraren egunean dagokien saria edo ikurra emango zaie irabazleei; FEUSE SARIA edo FEUSEren FARMABURUA, hain zuzen. Sariak eta ikurak urte askotan eman nahi ditugu eta zuk ere ikus ditzazun opa dizugu.